

ZONALDEKO BILERETAN EMANDAKO INFORMAZIOA / 2014ko maiatzak

1. Laneko Ikuskatzaileen bisitak eraginda eskolaz kanpoko ekintzetan sortutako arazoak

Gai honi dagokionez, azken eskualde bileratik hona, berri hauek besterik ez dira izan:

- otsailak 26: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kiroletako zuzendariarekin (Asier Sarriegi) eta eskola kiroleko arduradunekin. Bilera horretan aditzera eman zen eskola kirolari zer-nolako arazoak ekar diezazkiokeen eskola kiroleko begirale guztien lan egoera erregularizatzeko, bai kudeaketa administratiboaren ikuspegitik bai familiek aurre egin beharko lioketen kostu ekonomikoaren ikuspegitik. IGE batzuek jakinarazi digutenez, susmoa dute jaitziera nabarmena izango dela eskola kiroleko partaidetzan, baldin eta familiek ordaintzen dituzten kuotak % 40 igotzen badira. Aldundiak azaldu zuen azterketa bat egingo dutela begiraleen egoera hobeto ezagutzeko (begiraleen kopurua, lan egoera...), haien lan egoera erregularizatzeko izan dezakeen eragin ekonomikoa ebaluatzeko eta gainkostu horri aurre egiteko bideak bilatzeko.

- martxoak 26: Eusko Jaurlaritzako Enpleguko sailburuordearekin eta Lan zuzendariarekin. Gai honi buruz Gobernu Zentraleko Lan Ministerioarekin egin dituzten elkarrizketen berri eman ziguten. Esan digute Laneko ministroarekin elkartu ondoren, ministroak agindua eman duela ikuskaritzak eteteko; baina agindu hori ez da, nonbait, Euskadira iritsi, Arabako ikastetxeetara bisitak egiten jarraitzen baitute. EHIGERen bidez jakinarazi zaie gure asmoa dela eztabaida hainbat erakunde ofizialetara eramatea (Eusko Legebiltzarra, Hezkuntza Saila...) auzi hau konpontzen inplika daitezen.

Gaur egun, oraindik ez daukagu alternatiba argirik gai honi aurre egiteko. Hori dela eta, IGE bakoitzak bere egoera aztertu beharko du, eta egokien irizten dien erabakiak hartu (lan kontratua; enpresa zerbitzua; boluntarioak, gastuak justifikatuta...). Zenbait IGEk egin dizkigute kontsultak lan kontratu batek ekar lezakeen gastuari buruz, eta kopuru hauek helarazi nahi dizkizuegu, eredu modura:

<i>Begiraleak hilean kopuru hau kobratzeko:</i>	50,00 €	100,00 €	150,00 €	200,00 €	300,00 €	400,00 €
<i>IGEk kostu hau izango du, guztira, gastu guztiak barne:</i>	86,50 €	159,00 €	231,50 €	317,00 €	462,00 €	607,00 €

2. LOMCE legeri buruzko azken berriak.

Azken asteetan, berpiztu egin da IGEEK LOMCEri buruzko informazioa jasotzeko interesa; hala, otsaila eta martxoa bitartean 18 hitzaldi egin dira Gipuzkoako hainbat herritan.

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, lehendakariak barne, jendaurrean adierazi dute 2014-2015 ikasturtean ez dela aplikatuko legea Euskadin, argudiatuz eskuduntzak urratzen dituela (hori dela eta, konstituzioaren kontrakotasun errekurtsio bat jarri du) eta ez dagoela denbora aski lege berria garatzeko dekretuak onartzeko. Edonola ere, zalantza sortzen zaigu zer gertatuko ote den datozen ikasturteetan. Gainera, legeak aurreikusitako zenbait puntu indarrean jarri dituzte, jada; hala nola, eskola kontseiluaren eskumenak zuzendaritzaren esku uztea. Gai honi dagokionez, zehazki, EHIGEK, BIHE eta SAREAN zuzendari

elkarteekin batera, proposamen bat igorriko du ikastetxe guztietara, Eskola Kontseiluetan eztabaida egin eta onar dezaten. Proposamen horretan, honako akordio hau onartzea eskatzen zaio Eskola Kontseiluari:

“LOMCE aurreko erabaki ahalmenei eustea, organo hau osatzen duten pertsona guztien botoaren zentzua errespetatuta”

Asmoa da proposamen horren gaineko eztabaida ikasturtea amaitu aurretik Eskola Kontseiluak egiten duen bileraren batean gauzatzea. Adibidez, maiatzean egin ohi diren bileretan, 2014-2015eko eskola egutegia onartzeko egingo den bileran.

LOMCEren kontrako mobilizazioei dagokienez, zenbait herritan tokiko plataformak sortzen ari dira, “Hezkuntza Plataformen Topaguneak”, eta elkarren artean koordinatzeko urratsak egiten ari dira; plataforma horiek “LOMCEri gabeko herriak” kanpaina abian jarri dute dagoeneko. EHIGEk bilerak egin ditu plataformarekin, aurrera begira antolatzen diren ekintzetan nola parte hartu aztertzeko.

Azkenik, EHIGEn baitan, zenbait batzorde antolatu dira (curriculum, zuzendaritza-partaidetza, finantzaketa-ituna...), Legeari uko egiteko proposamen zehatzak aztertzeari begira.

3.- BAIKARA-GURASO ELKARTEA-FAMILIAK Komunikazio Plana

Federazioko erabaki organoetan behin eta berriz planteatu ohi da BAIKARAK zer-nolako zailtasunak eta gabeziak dituen IGEekiko eta familiekiko komunikazioaren arloan. Zenbait bide ditugu informazioa helarazten saiatzeko (hiruhileko aldizkaria, e-mailak, webgunea, gizarte sareak...), baina jabetzen gara BAIKARAREN presentzia eta ezagutza nahiko urria dutela IGEen Zuzendaritza Batzordeetan parte hartzen duten gurasoen artean. Zerbitzuari loturiko arrazoiengatik (bilerak, lan kontratuak, prestakuntza, aseguruak...) Federazioarekin zuzeneko harremana duten kideek ezagutzen dute eta aintzat hartzen dute Federazioaren lana. Eta egoera hori seme-alabak eskola publikoan eskolatuta dituzten familietara zabaltzen badugu, ikusiko dugu BAIKARA izena errazago ezagutuko dutela aldizkariaren izenburu gisa, Gipuzkoako eskola publikoko gurasoen interesen defentsarako sortutako elkarte gisa baino.

Familiei dagokienez, kezkarria iruditzen zaigu, halaber, eskola publikoarekin berarekin halako identifikazio falta izatea, alegia, “partaidetza sentimendu” eza. Sentimendu hori eskola publikoaren bizi iraupena kolokan egoten den egoeretan azaleratzen da, nagusiki eskola pribatuak tokiko eta hezkuntzako administrazioen erabakien mesedea jasotzearen ondorioz.

Hori dela eta, Federazioko Zuzendaritza Batzordeak gai honi buruzko analisi eta eztabaida prozesua abian jarri du, Komunikazio Plan bat onartzeari begira, lehen aipatutako gabeziak konpontzeko, hala nola, informazioaren transmisioa hobetzeko, Federazioaren irudia sendotzeko eta familiak kontzientziatzeko.

Lehen urrats modura, eta ikusirik komunikazioaren teknologia berrien erabilera eta aprobetxamendua oinarrizko gakoetako bat izango dela Komunikazio Plana lantzeko, galdetegi txiki bat igorri zaie IGEei, aztertzeko IGEen eta haien familien arteko erlazioetan eta komunikazioetan zenbaterainoko erabilera ematen zaien.

4.- Eskola garraioaren araudi aplikagarriaren aldaketak.

Hezkuntza Saila ikastetxeekin harremanetan jarri zen, eskatuz martxoaren 17a baino lehen txosten bat igotzeko eskola garraioari loturik ikasle bakoitzak duen egoeraren berri emanez, eskola garraioaren arautegiak ezarritako baldintzak betetzen diren jakiteko (2 kilometroko distantzia, Haur eta Lehen Hezkuntzan eta DBHko 1. zikloan; eta 4 kilometrokoa, DBHko 2. zikloan). Horretarako, programa

informatiko bat helarazi zitzaion ikastetxeei, GoogleMapsen oinarritua. Eskola garraioaren zerbitzuen esleipenak lau urterako izaten direnez eta esleipen horiek 2013-2014 ikasturtearen amaierara arte iraungiko ez zirenez, araudia malgutasunez aplikatzea zen asmoa: hain zuzen ere, distantziaren baldintza betetzen ez zuten ikasleek doako eskola garraiorako aukera izango zuten, betiere autobusean tokia izanez gero.

Baina datozen bi urteetarako esleipen lehiaketa egingo denez (esleipena beste bi urterako luzatzeko aukerarekin), zorrotz aplikatuko dira distantziaren baldintzak; hortaz, arautegian eskatutako distantziaren baldintza betetzen ez duten ikasleek ezingo dute doako eskola garraioa erabili. Ikastetxeek aplikazio informatikoan bertan ikus dezakete, dagoeneko, nola geldituko den kontua datorren ikasturteari begira, 2014-2015 ikasturteari begira. Horregatik, iruditzen zaigu familiei ere aldaketen berri emango dietela ikasturtea amaitzeko gelditzen diren bi hilabeteen barruan. Berez, gaur egungo ibilbideen %80 baino gehiagori eragingo die neurri horrek; horietako asko aldatu egingo dira, eta beste batzuk ezabatu. Ibilbideen gainerako %20an ez da aldaketarik izango datorren ikasturtean, baina esleipenak amaitu ahala erabakiko da horiei eutsiko zaien edo ez.

Ordezkaritzak onartuko dituen salbuespen bakarrak dira landa herriguneetan bizi diren eta beste udalerrri batzuetara lekualdatu behar duten ikasleen kasuak, oinezkoentzako egokitu gabeko bideetan ibili behar badute. Era berean, autobusa erabiltzeko aukera emango da, baldin eta tokirik badago, baina ikasle horiek ez dute izango jangela prezioari loturiko abantailarik, baimenduak izango baitira, eta ez garraiatuak. Kasu horietan, gainera, haur hezkuntzako ikasleei emango zaie lehentasuna.

5.- Eskola Publikoaren jaiak.

- Balmasedan ospatuko da Euskal Eskola Publikoaren 23. Jaia, 2014ko ekainaren 1ean. **“Gorantz goaz, go, go go!”** izango da lema.



- Eskola Txikien festa ekainaren 8an ospatuko da, Bidania Goiatzen. Eskola Txikien lehen festa Bidania-Goiatzen ospatu zen 1988an, eta **“Eskola Txikiak bizirik- Herri eta Auzo Txikiak bizirik”** leloa izan zuen. Orain, 27 urte geroago, berriro abiapuntura itzuliko da, Bidania-Goiazera.



6.- Intereseko beste gai batzuk

6.1 Azpiegituren hobekuntzarako 2014-2018 programa, Hezkunza Sailarena.

Apirilaren 4an, Hezkuntzako sailburu Cristina Uriartek agerraldia egin zuen, berak hala eskatuta, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean, bere sailaren Azpiegituren Hobekuntzarako 2014-2018 Programa aurkezterko. Guztira, 254 milioi euroko hornidura du, eta programaren helburua da datozen bost urteetan ikastetxe publikoetan egingo diren inbertsioak identifikatzea eta horien artean lehentasunak finkatzea. Programak zenbait esku-hartze eremu biltzen ditu:

A) Eskolatze beharrei erantzuteko obrak

Atal honetarako 179 milioi euro aurreikusi dira, eta Gipuzkoako ikastetxeetan honako jardura hauek egingo dira:

ESKOLA	Egiteko URTEA	ESKOLA	Egiteko URTEA	ESKOLA	Egiteko URTEA
ALKIZA HLHI	2018	MIGUEL ALTUNA GLBHI	2015- 2016 - 2017	JUAN XXIII HLHI	2017-2018
ANTZUOLA HLHI	2016 - 2017	AIETE HLHI	2014-2015-2016	SORALUZE BHI	2017
KURTZEBARRI HLHI	2014	MUSIKENE GMIB	2014-2015	EGAPE BHI	2018
XABIER MUNIBE BHI	2014-2015-2016	CRISTOBAL GAMON BHI	2018	ERNIOBEA BHI	2015-2016
BEASAIN BHI Fase I	2015-2016	HERNANI BHI	2015-2016-2017	ARROA HLHI	2017-2018
BEASAIN BHI Fase II	2017 - 2018	URUMEA IKASTOLA HLHI	2014-2015	OIKIA HLHI	2017
S. MARTIN DE AGIRRE HLHI	2014	AITA IPARRAGIRRE HLHI	2016	ZUMAIA BHI	2016-2017-2018

B) Berrikuntza, hobekuntza eta arautegira egokitzeko lanak:

30.578.109 euro, guztira

C) Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak, udalaren titulartasuneko ikastegiak mantentzeko eta kontserbatzeko

“Udalaguntza” izenez ezaguna da programa, eta 30 milioi euroko hornidura du, urteko 6 milioi.

D) Obra txikiak

15 milioi euro; urtean, 3 milioi.